



## Gaur arratsaldeko saioarekin bide erdira helduko da lehiaketa

**TOLOSA** ▶ Atzo lehiaketan parte hartuko duten bi talde euskaldunak aritu ziren, haur kategorian


**SAILAK** ▶ Gaurko saioan folkloreari eta polifoniari egingo diote lekua kanpoko hiru taldek ▶ 2-3

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** ▶

**Lore ugari Santu Guztien Egunean**

Ereite elkarteak mexikar erara ospatu zuen eguna ▶ 3

**ARANTXA SAGASTIBELTZA** ▶ SOMMELIERRA



UR ALGUERO

«Gomendatuko nuke ardo mota ugari dastatzea» ▶ 6



Atzo arratsaldeko Abesbatza Lehiaketako saioan, Rigako (Letonia) koroaren emanaldia, Leidor aretoa beteta zegoela. N. URBIZU

Ahotsik ederrenen atzean ere, **kutxa** dago.

Tolosako 39. Abesbatza-Lehiaketa Urriaren 27tik azaroaren 4ra

Urteko leialde berriz Gizarte Ekintzaren bitartez, kutxak laguntza eman die suten ere Tolosako Abesbatza-Lehiaketari, beronen 39. Edizioa abesbatza gara herriaren musika, kultura eta balioak zabaltzearen.

**39**  
2007  
27. URRIA - 4. AZAROA

**gizarte ekintza**  
kultura

zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

KALE KANTOITIK ▶  
JOXEMI SAIZAR

## Bi lider egun berean

Iragan ostegunean Tolosako Zine-Klubak eskainitako Claude Chabrolen *L'ivresse du pouvoir* (*Boterearen mozkeria*) film aparta ikustera Leidorrera joan ginenok, autonomia erkidego honetako boterea historian zehar eduki duen (eta duen) alderdi politikoko ordezkari nagusiak topatu genituen sarrian. Erraza jarri zuten txistea. Ez ziren filma ikustera joan. Behintzat ez nuen horietako inor barruan ikusi. Agian lehendik ikusita izango zuten. Ibarretxe EAeko lehendakaria entzutek atera berriak ziren.

Garai berean Fernando Barrenak ere hitzaldia eman zuen, Kultur Etxean. Honen berri bagenuen aurretik egunkari eta kaleko kartelen bidez. Bestearena ez, alderdi barruko ekitaldia izan zen nonbait. Kasualitate handia lehendakaria eta kartzelan ez dagoen ezker abertzaleko lider (ezagun) bakarra Tolosan egun eta ordu berean aritzea. Edo ez zen kasualitatea izan? Batek aparkaleku arazoa bere baitan jasan omen zuen gainera. Ez dago esan beharrik zein, ezta?

Ezti Ibarretxeren hitzaldia entzuten egon zirenetako batzuk Leidorrera itzuliko dira agian. Beste urte batzuetan hala izan da behintzat, Abesbatza Lehiaketaren amaiera ekitaldia zela eta. Kanpoan zain izango dituzte aurrekoan Barena entzuten egon zirenetako batzuk, urtero bezala presoen aldeko aldarrikapena egiteko. Herri honen egoeraren bi aurpegiak islatzen duen irudia osatuko dute duen artean. Horrela noiz arte?

39. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

# Txaloak arratsaldean

Atzo euskal umeen ahotsen txanda izan zen, ikusleen txalo eta algara artean eta gaur 19:30ean polifonia eta folklore saileko azken ekitaldia izango da



Orereta abesbatzak txalo zaparrada jaso zuen, batez ere, *Habaneras del Carnaval* obra eskaini ondoren. A. IMAZ

### A. IMAZ - N. URBIZU

Haurren txanda izan zen atzo, Tolosako 39. Abesbatza Lehiaketako bigarren eguna, alegia. Euskadiko bik hartu zuten parte: Errenteriko Orereta abesbatzak, eta Luis Dorado Unamuno gasteiztarrek. Hauek izan ziren txalotuenak, ikuslegoari errepertatu gero, Euskadikoak baitziren gehienak.

Gaur arratsaldean izango dira emanaldi guztiak, 19:30etik aurrera Leidor Antzokian. Abesbatza Lehiaketan folklore eta polifonia sailetan parte hartuko duten abesbatzen ekitaldia izango da. Bihar, berriz, musika erlijiosoari eta profanoari egingo diote lekua. Arratsaldean Golden Apple Quarteten kontzertu berezia izango da. Gauean, bestean artean, Beotibar pilotalekuan

dantzaldia eta epaimahaiaren erabakia jakitera emango da. Gaur hiru abesbatza ariko dira.

### VOX GAUDIOSA

#### Jatorria.

Tokio (Japonia).

#### Zuzendaria.

Ko Matsushita.

#### Taldekideak.

14 emakume eta 14 gizon.

**Historia.** 1996an eratu zen eta hurrengo urtean hasi zen emandiek. 2000. urtean All Japan Chorus Competition lehiaketan parte hartu zuten eta urrezko domina eskuratu zuten. Errepertorio aldetik, oso anitza da, eta gehienbat a capella musika jorratzen dute. Errenazimentutik hasita musika garaikidera arte. Zuzendariaren beraren musikari arretera berezia jartzen diote, bera baita Japoniako kamara musika

konpositore garrantzitsuenerarikoa baita. Guztura 10 eskainiko dituzte.

### KAMMERKORET NOVA

#### Jatorria.

Oslo (Noruegia).

#### Zuzendaria.

Anne Karin Sundal.

#### Taldekideak.

17 emakume eta 16 gizon.

**Historia.** 2001ean sortu zuen gaur egungo zuzendariak. Errepertorio zabala jorratzen dute. Errenazimentuik musika garaikidera arte. Emozioa eta adierazkortasuna asko lantzen dute. Bi ezaugarri hauei esker ospe bikaina izan dute norbikiarrek. Europan hainbat sari jaso ditu, esaterako, Italiako Concorso polifonico Guido d'Arezzo lehiaketan. 2003an kamerako abesbatzarik onenaren saria eskuratu zuen. Os-

loko abesbatzak 13 obra prestatu ditu arratsalderako.

### CHOROS AMICI

#### Jatorria.

Tutbury (Erresuma Batua).

#### Zuzendaria.

Chris Mallinson.

#### Taldekideak.

15 emakume eta 14 gizon.

**Historia.** Bere lehenengo topaketatik abesbatza hau berezia da, bitxia. Abeslari guztiak zuzendariaren lagunak dira, eta noizbehinkako asteburutan elkartzen dira gogri lan egin eta barrea egiteko. Gozatzea bilatzen duen familia bat bezala da. 15 urteko abesbatza da eta nazioartean ezaguna da. Sari aipagarrien artean BBC Television Choir of the year 2000 dago. Azken saria 2005ean eskuratu zuen. Hauek 10 obra interpretatuko dituzte.

## HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Letoniako Mixed Choir of Latvian Academy of Music. A. IMAZ

**IRITZIA ▶ MIGUEL ZEBERIO (ABESBATZA ZUZENDARIA)**

## Segi dezala festak!



**A**niztasuna present izan dugu lehendabiziko momentutik Leidor antzokian. Hori dastatzen, gozatzan ez dakienak hobe du honen antzeko Lehiaketan jai egin. Aniztasuna, dibertsitatearen antzera guztion ahotan dagoen baina egunerokotasunik ez duen zerbait da. Desberdintasunak goza arazten digu, uniformitate eta berdintasun totalitarioaren aurrean. Honek ordea modatik kanpoko bidea eskatzen du, beraz, adi!

Banan-bana taldeak entzuten ditudanean, bakoitzaren nondik norakoan pentsatzen jartzeko parada ematen dit. Erakusten dutenetik beti dago zerbait jabetzeko modukoa, barrenekoa; bere zergatiak marrazten dituen arrastoak azaleratu ahala, barrunbeak biluztu ahala, kontura naiteke esanahiaz.

Kronikatxo hau idazterako, dastatu ahal izan ditugu hielduen zazpi bat abesbatza. Arestian aipatutakoa kontutan harturik ere ezin azipmaratu gabe utzi Rigako (Letonia) Goi Kontserbatorioko koruaren jarduna. Amets eder batean gure goi mailako Musikene zentruari legokio-kena zukeen. Gureak ez be-

zala, kantua eta kultura oro har, nazio berri honek aldarrikapen ikur aukeratu ditu. Emaizta bistakoa; gaztetasunaren ausardia eta indarra, honetan, jakinduria goiztiarrarekin eskutik doaz. Bitartean gurean ametsak ihes egiten dute.

Haurrei eskainitako saio arrakastatsua arintze aldera berrikuntzaren bat ongi etorri legoke. Entzuterik izan ditugun euskal egileen obrak kezka gai zaizkit. Ekialdeko taldeek ekarri dituzten eresi, erritmo eta aire herrikoiaren aldean, horrelakorik ez dugunaren itxura baino ez dugu erakutsi. Hain atzerakoia ote gure doinu, kondaira eta dantza zaharren gainean obra berriak eraikitzea?

Junkal Guerreroren Bi Bihotz behartutako obrak makina bat buruhauste eman die taldeei, afinazioa dela edo erritmoa dela. Seguruenik Canadako Cantilon Haurren Korua alde teknikoan trebatuena izan dugu, baino guztien artean Moskuko Musika Pedagogia Eskolak, atera dizkio ezpalik mami-tsuenak kontzertuari.

Tolosarrok zerbaitek poztu bagaitu hala ere, David Azuraren Habaneras del Carnaval izan da. Maila guztietan hilabete gutxi barru biziko dugunaren aurrekari izan dira Oreretarrak, gustu oneko txantxan. Segi dezala festak!

**SANTU GUZTIEN EGUNA ▶**



## La Catrina eta hildakoen bakea hilerrietan

**Asier Imaz ▶** Egun guztian zehar hildakoak go-goan izan zituzten gure artean bizi diren mexikar euskaldunek. Heriotzaren etorrera edo La Catrina, andere dotore baten itxuran ikusten dute. Atzoko eguna, azukre, fruitu eta hildakoei gehien gustatzen zitzaizkien gauzen artean igarotzen dute, heriotzari beldurrik gabe euren herrien hilobien inguruan nola elkartzen diren ere azaldu zuten mexikarrek. Eliza bigarren maila

batean geratzen da ospakizun hauetan. Eskualdeko hilerriei, berriz, kolorea jarri zieten bizirik dirautenek. Hilobiak eta hildakoei lehen orduetik urrats asko nabaritu zituzten euren gainean, betiko bakea hautsiz ordu batzutan. Arratsalde amaieran giro hotza itzuli zen gauaren iluntasunaren babespean, baina loreak, kolore eta prezio guztietakoak, atzoko eguna egun bat gehiago ez zela izan gogorarazi zien hildakoei. N. U./A. I.

**VILLABONA ▶ MAHAI TENISA**

## Zonakako Espainiako Torneo 2 egunez

Olaederran seniorren eta beteranoen mailakoa jokatu dute

**ERREDAKZIOA**

Villabonako Olaederra mahai tenis klubak Zonakako Espainiako Torneo antolatu du, Udal Kirol Zerbitzu eta azteritazio informazio bulegoaren laguntzarekin. Txapelketa seniorrei eta beteranoei (40 urtetik gorakoak) zuzendua izango da eta bihar eta etzi jokatu dute Olaederran. Bihar egun osoan zehar ariko dira, eta etzi, berriz, goizean zehar.

Lehiaketa honetan Espainiako iparraldeko 50 jokalar-

tik gora parte hartzen dute. Lehen zortziak azken faserako sailkatuko dira. Hau Ciudad Realen (Gaztela Mancha, Espainia) jokatu dute otsailan. 12 mahai jarriko dituzte txapelketarako eta ikuslearentzat sarrera doan izango da. Txema Armentia da beteranoen mailan eskualdeko bakarra. Izan ere Anton eta Urkizu jokoz kanpo geratu dira lesio baten ondorioz.

Torneo hau Gipuzkoan antolatu den txapelketarik garrantzitsuenetakoa da.

Udaletxeko partaide baten presentzia espero dute etzi, 13:00a aldera, izan ere, ordu horretarako aurreikusitako dute sariak banatuko dituztela.

**iragarki laburrak ▶**

**EROSTEKO**

**Txakurkumea.** Arratoi arrazako txakurkume bat erosi nahi dugu, arra izan dadila. Interesatuak 637 47 48 23 telefono zenbakira deitu.

MENDIA >

# Euskal Herriatik Pakistanera

## Villabona, Zizurkil eta Andoingo hiru gaztek 6.245 metroko garaiera igotzea lortu dute Pakistango Baltoroko bailaran, berrogei egun iraun duen espedizioan

### LEIRE GOROSTIDI

Mendriako, eta honen barruan eskalatzeko zaleasun handia egon da beti Euskal Herrian. Honela, beste hainbaten pausok jarraituz, Pakistanen kokatuta dagoen Baltoroko bailara ezagunera abiatu ziren Villabona-ko hiru gazte, «esperimentzia paregabea bitzitzeko asmoz».

Gorka Barandiaranentzat (Villabona, 1984), Gorki Tormorentzat (Zizurkil, 1976) eta Aitor Kortarrantzat (Andoain, 1973) urte eskoz praktikaturiko zaleasuna izan da eskalada. Euskal Herrian zehar harikatuz ugari eskalatu osten, argi zuten beraren helburua. Baltoroko bailaran aurkitzen den Torre sin nombre (1.200 m-ko garaiera) delako

pareta igotzea zela. 5.400 metroko garaieran kokatuta.

Errokia bete aurretik, bide luzea egin behar izan zuten Villabonatik hasi eta 6.245 metroko kokatuta dagoen gailurra zehazitu bitartean.

Diru laguntzarik ezean, kamisetak salitzen jardun zuten lehen espedizio hau aurrera eramateko eta Barandiaran eta Tormok azpimarratu bezala, «argi utzi nahi dugu laguntzarik gabe, bi hilabetez izutu den bidaia hau egitea ez zela posible izango».

Mendizale eta eskalatalaien artean herrialde ezaguna da Pakistan, bere orografia konplexuarengatik. Barandiaranek azaldu bezala, «Torre Sin Nombre izugarria da. Euskal Herrian ez da horrelako harikat handirik aurkitzen».

Argi dago, denbora eta esperimentzia nahi eta nahieko faktoreak direla horretarako espedizio bat prestatzeko. Tormok, urteak eman zituen proiektu hau egiteko ametsarekin eta behin beharrez, hiru bidez hasi ziren hirurak, bidaiaren presaturakuntza.

**Guztia prest**

Araozak, sasiesteko asmoz eta egin nahi zutena oso ondo pentsatuta, prestatuta eraman zituzten etxetik Pakistanen burutu beharrekoko ekipatze guztiak. Barandiaranen abuzur, eguziak egin nahi izatea ez da nahikoa. Ideiak oso argi eduki behar dira eta pik oso ondo gementen. Guzuzak argi eduki osten, hobe da ez joatean.

Beharrezko gauza guztiak prestatu osten, Pakistaneko hiriburua den Islamabad-en egin zuten lehen geldiduna. Bertan, azken helmugara gerturatu zituzten furgonetan ipoi, eta bi egunez izutu zen bidaiaren murgidua ziren.

Errekupeparat aurretik, lur orotako ibidagalu batean egin behar izan zuten hirugarren egun bat. Baltoroko bailaririk geroz eta gertuago zegoen herrikoa galdutako batetara iritsi bitartean.

Horri bera izan zen espedizioa amaitzerate ikusi zuten azken herri eta zibilizazio puntua. Harrigarria dirudien arren, Tormoren hitzetan, «azken herri honetatik aurrera, ez zuten emakume pakistandar gehiagorik ikusi», debekatuta zutelaiko bertatik irteera.

Guzteen adierazpenen arabera, «ez zuten kontaktu gehiagorik izan bertako jendearekin, kontutan hartu behar baita ingurunea harritz beterikoa basamortu antzeko bat zela eta ez zegoela ia herririk, eta are gutxiago jendea».

Paralelearen zailtasunak medio, oinez jarraitu behar izan zuten ibilbidetara, eta hogei ta hamar laguntzale pakistandarrek, bide galdutako proiektuak gaitunditza behar izan zituzten. Huru egunez, mundutik abiatuta zegoen oinarriko kanpamentura iritsi arte, utzi-lanaren Sean. Tontorrera uztailearen 21ean iritsi ziren. Tormok azaldu bezala laguntzaleek 25 kilogramotako zama garraiatu zuten egun guztian zehar eta hamar euro besterik ez zuten irabazten honen truke eguneko Harrigarria da.

Laguntzale hauekin, hala moduz, komunikatzen zirenen gainera eta hauek gabe, ez litzateke posible izango ondo-

rengo egunetarako ezinbesteko ziren soka, kanping denda, gasolina, janari eta bestelakoak eramatea.

Espedizioetan irabazitako diruzaz bizi da urte guztian zehar Pakistaneko jende asko. Kontutan hartzekoa da, hala-mau zortzimilakoetatik, bost, Pakistanen aurkitzen direla (K3, 8.047m, G1, 8.068m, G2, 8.035m; Nanga Parbat, 8.125m) eta batura munduko bigarren mendirik garaiera ere, K2a (8.611m).

Laguntzale pakistandarrek oinarriko kanpamentura arte lagundu zituzten hiru gazteak. Hortik aurrera hasi zen benetako isolamendua eta batura hila-betez zehar plantifikaturiko proiektua ere. Hau da, 1200 metroko garaiera duen Torre Sin Nombre delako pareta eskalatu.

**Eguraldiak ez zuten lagundu**

Barandiaranek eta Tormok argitu bezala, egure helburua eskalada zenez, beharrezkoa izan da lehenik 4400 metroko garaieran zegoen kampo base-rra iristea eta honen ondoren 5400 metroa, beretan nahi gertuena handiki egin ahal izateko.

Hurrengo egunetan, oina-

### FITXA >

Baltoroko bailaran (Pakistan) egon diren hiru eskalatalaiek:

**GORKA BARANDIARAN**  
Adina: 23 urte  
► Bost urtez aritu da eskalatan.

**GORKI TORMO**  
Adina: 31 urte  
► Espedizioaren proposamena egin zuena.

**AITOR KORTA**  
Adina: 24 urte

rrizko kanpamentutik (4.400 m) paretaren magalera (5.400m) zegoen tartea behin eta berriz egin behar izan zuten material guztia gorantz igotzeko. Lanari gogotsu ekin zuten hirurehun metro prestatu baitzuten paretan gora, akilamatatzeko balio izan zirena aletgia —kanping denda jarri eta gau bakarra pasa zuten bertan—. Kanpamentura jeltsi eta beheran igaro behar izan zituzten ondorengo egunak, atsedean hartu eta eguraldi ona iritsi zain. Barandiaranen hitzetan, «esperimentzia honen aierdirik gogorrera eguraldi txarra izan da. Psikologikoki oso nekagarria da ezer ez egitea eta janari orduetan besterik ez pentsatzea. Hogeieta lau orduz kanping denda sartuta egotea ez da erraza».

Besaldea, mendizale poloniar baten heriotza ikustea egokitu zitzaion eta hau ere

osoa kolpe gogorra izan zen hiru gazteentzat.


Mendizaleek oso ondo ezagutzen duten hitza da pazientzia. Ez da harrizkoa, helmugatik gertu egon eta atzera bota behar izatea eguraldi kontingentziak edo bestelako arrazoi bultzengatik. Kasu honetan ez zen horrela izan.

Eguraldi onak lagunduta bost egunez aritu ziren 1.200 metroko hitza eskalatzeko eta honela, uztailearen 21ean iritsi ziren tontorrera. Paretatik zintzik egondako bost egunetan bizituzkoa, paregabea dela diote Villabona-ko gazteak.

Barandiaranek eta Tormok aitoritu bezala eta haserako baldurak gaitunditza, ueste baino arazo gutxiago izan zituzten. Euskal mendiek ez diote zeri-kusirik Pakistanekoekin. Bi esperimentziak ezin dira alderatu.

Uste baino lehenago hitza ziren gailurera eta oinarriko kanpamentura jaitzita gertu zegoen beste pareta bat eskalatzeko pentsatu zuten. Harrira trekitzen hasi orduko, behar behar ziren ez zela espero zutena eta material aletetik larri zabalitzeaz, bertan behera utzea erabaki zuten.

Lanak alde batera utzita, eterra bueltatu aurretik, turismopixkat egiteari ekin zitien bi astez. Lehen espedizioa amaituta, eta helburua beteata, sentisano paregabearenkin itzuli dira Euskal Herriera. Beste bidaiak bat prestatu bitartean, lehen honen inguruko hitzaldiek ematen jardun behar dute jendeak bidaiak honen berri izan dezan.




**GORKA BARANDIARAN**  
ESKALATALAIA

«Harrigarria izan da topaturiko mendizale pila; espedizio asko egiten dira Pakistanera»



**GORKI TORMO**  
ESKALATALAIA

«Emakume poloniar baten heriotza bizitzea egokitu zaigu lehen espedizio honetan; une latzak benetan»



**KMI**

ARTISTA BERRIEN XLII LEHIAKETA

Erakusketa

2007ko azarailu 9 - azarailu 10

**BATEMILA EUSKAL MUNDUAK**

Multimedia erakusketa

2007ko irailaren 17tik azarailu 17ra

ARANTXA SAGASTIBELTZA ▶ SOMMELIERRA

# «Jendeari ardo desberdinak dastatzeko aholkatuko nioke»

Lasarteko Berasategi jatetxe ezagunean ikasten aritu eta gero Iruñeako Mutiloa Erretegian ari da lanean Leitzako somelierra

UR ALGUERO

Lanera joan aurretik bere agenda estuan tartetxo bat egin digu Arantxa Sagastibelzak (Leitza, 1980). Berarekin hitz egitean argi geratzen da ardogintzaren mundua oso gustuko duela eta lanbide bat baino gehiago dela berarentzat.

**Sommelierra izatea nahiko ezohikoa da: Zertan datza zure lana?**

Nire lana ardoak ezagutu eta ezagutaraztea da. Nik ardoekin egiten dut lana baina badaude likoreekin eta ur ezberdinekin lanean aritzen diren somelierrak ere.

**Sommelierra izateko zer ikasi behar da?**

Ikasketa ofizialak Bartzelona eta Madrilen bakarrik egin daitezke, baina jende gehienak somelier gisa aritzeko ikastaroak egiten ditu. Nik Iruñeako sukaldaritza eskolan ikasi nuen. Bertan gure irakaslea Pilar Garcia Granero izan zen, Nafarroako Jatorrizko Izendapenaren lehendakaria eta enologo ezaguna, egia esan asko irakatsi zigun.

**Zertaz jakin behar du somelier on batek?**

Batez ere, usain ezberdinak ateratzen, upategiak ere ezagutu behar dira eta ardo ezberdinak saltzen jakin behar da. Etengabeko lana egin behar da informazioa bilatzen, liburuak irakurtzen, ardo desberdinak dastatzen... Esfortzua egin behar da egunean egoteko. Garrantzitsua da ardoaren inguruan egiten diren azoketara joatea, Baluartera, Kursaalera...

**Sommelier on batek noren interesei egin behar die kasu? Bezeroen edo jabeen?**

Bezeroei nahi dutena atera behar zaie, bestela hurrengoan ez dira itzuliko. Oso denbora gutxian bezeroa nolako den ikusi behar da, tradizionala den edo laguntzen uzten den... Jende gehiena nahiko tradizionala da, batez ere herri txikietan. Gehienek Errioxako ardoetara jotzen dute. Bezeroari arreta eskaintzeko psikologia garrantzitsua da, maila ekonomikoa kontutan izan behar da, ardoetan nondik jotzen duen ikusi, ardo leunak edo sendogak gustuko dituen...



U. ALGUERO

## BERASATEGI

«Bezeroak termometro eta guzti etortzen ziren ardoari tenperatura hartzeko; denak ongi egon behar zuten»

**Sommelierraren irudia oso maila altuko jatekoekin lotzen da, egiaz lanbide elitista bat al da?**

Orain arte horrela izan da, gaur egun ardogintzaren mundua zabaltzen ari da eta jatetxe gehienetan gehiago zaintzen da ardoaren aspektua.

**Azkenaldian ardogintza modan jarri dela dirudi, zure lanbidean nabaritzen al da?**

Bai, jendeak geroz eta gehiago desberdintzen ditu usainak, geroz eta gehiago uzten da la-

## BEZEROEN JARRERA

«Geroz eta gehiago dakite ardoei buruz, irekiagoak dira ardo ezberdinak dastatzeko eta aholkuak onartzeko»

guntzen... Nik Nafarroako ardoetara jotzen dut, eta bestela Errioxa ez diren beste ardoetara. Ardo desberdin asko daude elementu ezberdinen arabera, urtea, kupela...

**Sommelierraren irudia baloratzen al da jatekoetan?**

Jatetxe onetan bai, gainera normalean bi edo hiru izaten dituzte, goi mailakoak ez diren ez da hain beharrezko, baina goi mailakoetan bai. Berasategin ari nintzenean jendea termometro eta guzti etor-

## ESPORTAZIOA

«Badira ezagutu ere egiten ez ditugun Nafarroako ardoak, dena atzerrian saltzen delako, Japonian batez ere»

tzen zen bazkaltzera... Horrela-koetan somelierra behar-beharrezkoa da.

**Emakume gaztea zara, jendeak berdinduz onartzen al ditu zure aholkuak?**

Hasieran kostatu egiten zaie, baina gero normaltasunez hartzen dute. Aurreneko sententziaz aparte jendeari ohiko ardoak desberdina den bat eskaintzean ere pixka bat kostatzen zaie onartzea.

**Pentsatu al duzu txapelketaren batean parte hartzea?**

## DI-DA BATEAN ▶

**Ardo zuri bat?** Jose Pariente (Rueda).

**Gorria?** Eolo (Nafarroa).

**Beltza?** Garcia Burgos SH (Nafarroa).

**Kaba?** Juve y Camps.

**Txanpalna?** Veuve Clicquot.

**Zaletasun bat?** Ardoa.

**Pelikula bat?** *La vida es bella*.

**Liburua?** *El vino y la tierra*.

**Bidaia bat?** Kaliforniara, bertako upategiak ikustera.

Hemendik urte batzuetara bai, hobeki prestatuago nagoenean. Txapelketetara joateko upategiak asko ezagutu behar dira eta hemendik nahiko urrun geratzen dira... Gainera gehienak atzerrian dira eta ingelesa jakin behar da...

**Ardoak dastatzeko zer izan behar da kontutan?**

Lehenbizi zer ardo mota den ikusi behar da, erreserba bat den, erreserba handi bat, ardo ondua... Gero lehen mailako usainak zein diren ikusi behar da, ondoren ardoak haizea har dezan kopa mugitu eta bigarren mailako usainak hartu behar dira. Hirugarren pausoa dastatzea da, hor zenbateko azidotasuna duen ikusi behar da, ea gozo punturen bat ote duen... Gero haizea hartu behar da eta barruan hirugarren mailako usairen bat geratzen den ikusi behar da. Behin usaina hartuta ardoak itxita ote da goen ikusi behar da. Itxirik badago ardoak dekantatu beharra dago eta prozesua berriz egin. Hau batez ere ardo zaharrek egin behar da. Usai arraroren bat baldin badago ardoak itzuli beharra dago.

**Ardoak erosteko garaian zer izan behar da kontutan?**

Lehenik, zer ardo mota dugun gustuko. Ardotegi espezializatueta ardoak hobeki zaintzen dela kontuan izan. Eskaintza berezietan dauden ardo zaharrek ez erosi, normalean txarrek egoten dira eta. Bestalde aholkuak eskatzea komeni da eta ardo ezberdinak probatzera animatu nahi nuke jendea. Garrantzitsua da zer janariarekin lagundu behar den kontuan izatea ere. Gaur egun ardo ona ia toki guztietan egiten da.

**Nola ikusten duzu hemo ardogintzaren egoera?**

Nafarroako ardoen kontsumoa beheraka doa, eta aldi berean geroz eta upategi gehiago daude. Ardoak ere geroz eta hobea goa da eta bertan saltzen ez dutenez atzerriara eramaten dute, gehienbat Japoniara. Badira hemen ezagutzen ez ditugun ardoak, ekoizpen gutxia Japoniara eramaten dutelako.

IBARRA ▶ GASTRONOMIA

# Urte txarra piperrarentzat

Pasa berri den hilabetean amaitu zen piperrak poteetan sartzeko prozesuarekin aurtengo «piper bilketa denboraldi konplexuari» amaiera eman diote



Txumitxa enpresako langileak piperrak poteetan sartzten. H. BELLOSO

JOSE ANTONIO REZOLA ▶ TXUMITXA ENPRESAKO BURUA

## «Piperren kalitatea mantendu egin da nahiz eta arazo asko egon diren»

Piper bilketaren garaia amaitu berri da, eta tamalez gauzak ez dira oso ondo atera. Uda hone-tan eguraldiak ez du batere la-gundu eta hori ekoizpenean asko nabaritu da. Ibarrrako Txumitxa enpresako buru den Jose Antonio Rezolak (Ibarra, 1959) aurtengo produkzioaz eta lan egiteko izan dituzten arazoei buruz hitz egin du.

### Nolakoa izan da aurtengo produkzioa?

Nire ustez urtea nahiko txarra izan da. Berandu hasi ginen lan egiten eta gainera aurtengo udara euritsua eta hotza izan da.

### Zenbat kilo jaso dira?

Hogei mila kilo inguru jaso di-tugu, baina 2006an adibidez berrogei mila baino gehiago jaso genituen, beraz, ez gaude oso pozik.

### Zein faktorek eragin dute aur-tengo kopurua hain baxua izatea?

Udaberri amaieran hasi nahi genuen lanean, baina lurraren



A. IMAZ

egoera ez zen oso egokia eta beraz beranduago hasi ginen. Euri ugari egin zuen ere eta ho-nek lana asko oztopatu zuen. Udaran nahiko genukeen bai-no bero gutxiago egin du eta gainera irailean hotza egin du, piperrean kalitatean eta kopu-ruan eragin zuzena izan duela-rik.

### Nolakoa da aurtengo pipar- rren kalitatea?

Kalitate onako piperra dela uste dut. Aurtun piper kopurua asko murriztu da, baina kalita-tea mantendu egin da eta hori guretzako oso positiboa da. Jendeari asko gustatu zaio eta gozotasun puntu bat duela ere entzun dugu. Euri asko egiten duenean, aurtun gertatu den bezala, piperraren zaporean nabaritu egiten da.

### Gipuzkoan eta Euskal He- rrian oso ezaguna da Ibarra- ko piperra, baina leku gehi- gotan ezagutzen al da?

Ezagutzen da, baina hemen du fama gehiena.artzelona eta Madrilen ere gure piperrak ezagutzen dituzte eta bertako jatetxeetatik eskakizun asko jasotzen ditugu. Piperraren za-pore berezi hori oso gustuko dute. Dirudenez, garrastasu-narekin erlaziozaten dute gure produktua. Frantzia ere ezagutzen dute, baina nahiko gutxi.

HARRIET BELLOSO

**E**z da urte erraza izan pi-perrekin lan egiten duten enpresentzako. Aurtun jaso den kopurua iaz jaso zena baino askoz urriagoa izan da eta horregatik Ibarra etsipen sentimendu bat dago.

Urte txar hau azaltzeko zen-bait arrazoi garrantzitsu eman dira. Aurtun inoiz baino beran-duago hasi ziren landatze lan-ak eta lurren egoera kaxka-rrak gauzak asko zaildu zituen. Traktoreak ezin ziren sartu eta horrek lana oraindik gehiago berandutu zuen.

### Eguraldia etsai nagusia

Uda txarra izan da aurtengoa. Euria nagusi izan da eta eguzki egun gutxi egon dira. Udabe-rrian eguraldia oso txarra izan zen eta lan egiteko mementuan asko antzeman zen. Eguzkia ez zen ia atera eta horregatik lu-rraren egoera ez zen apropo-sena lana egiteko. Gainera, irai-la nahiko hilabete hotza izan da. Faktore hauek gutziek az-kenean piperran izan dute era-gin zuzena. Euri asko egiten badu eta temperaturak hotzak badira, piperra geldirik egoten da eta motelago hazten da. Eguraldia ona ez bada piperra-

ri orban txiki bat ateratzen zaio eta ondorioz honen kalitatea baxuago izango da. Beroa egi-ten badu aldiz, piperra azka-rrago hazten da eta, gainera, kalitate aldetik hobegoa izan-go da. Temperatura egokiare-kin lurra hobeto landu daiteke eta piperra gehiago bildu dai-tezke.

Irabaziak oso baxuak izan dira jasotako piper kopurua nahiko eskasa izan delako. Pro-dukzioa %50ean jaitsi da eta betiko bezeroen eskariak bete-tzea oso zaila izan da. Enkargu asko egin dira baina lehenen-go ohiko bezeroekin amaitu nahi da.

Nahiz eta produkzioa jaitsi izan, piperraren kalitate ona mantendu egin da. Urte hezea izan da eta hori zaporean eta egituran nabari da. Jendeari asko gustatu zaio garratza ez delako eta gozotasun puntu bat duelako.

### Poteetan sartzeko prozesua amaituta dago

Abuztu amaieran hasi ziren pi-pearrak poteetan sartzten. Be-randuago eman zitzaion hasie-ra prozesu honi, aurtengo pi-per kopurua askoz baxuagoa baitzen. Hogei pertsona ingu-ruk egiten dute lan Txumitxa enpresan. Hasieran piperrak biltzen aritzen dira eta udara amaieran poteetan sartzten hasten dira.

Pasa den hilabetean bukatu zuten prozesu honekin eta he-mendik gutxira hasiko dira da-torren urteko denboraldirako prestaketekin. Urte honetan erabili dituzten materialak kendu egingo dira eta berriak ezarriko dira. Lurra berriz lan-du egin beharko dute baina lan hori datorren urteko martxoan egingo dute.

Hiru dira Ibarra piperrekin lan egiten duten enpresak: Ko-operatiba, Zubelzu eta Txumi-txa. Beraien arteko erlazioa ona da, gehienbat lan egiteko lur ugari dagoelako.

### Piperra Ibarrik kanpo

Azken urteetan Ibarra piperrak oihartzun handia izan du Gipuzkoan eta Euskal Herriko zonalde askotan, baina heme-dik kanpo ez da gehiegi hedatu oraindik.artzelona eta Ma-drilen ezagutzen da, eta zen-bait jatetxe eta denda berezie-tan eskuragarri daude herriko beste produktu batzuekin ba-tera. Elikagai garrantz bezala kalifikatzen dute eta bere za-pore bereziak arreta deitzen diete. Espainiako beste puntu batzuetatik egiten dizkiete es-kaerak, baina eskatzen dituz-ten kopuruak oso txikiak izat-en dira. Frantziako herri ba-tzuetan ere jaten dituzte.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko azaroaren 2a, ostirala ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldean beroena **13** hotzena **6**

BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldean

**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA** **902 82 02 01**  
(balantzak argitzeko, harpidedun egileko...)

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** Txintxarri Eguna azaroaren 18an izango da. Bazkaria Txintxarri jatebetean izango da. Bazkarirako txartelak 35 eurotan salgai Kafe Letamendian, jubilatuen tabernan eta Landa Enea kafetegian.  
**Orexa.** Jon Maia, *Apaizac obeto* espedizioko kideak aurkeztuta ikus-entzunezkoa 21:30ean udalebekeko ganbaran, Kultur Hamabostaldiaren baitan.  
**Tolosa.** 39. Abesbatza Lehiaketa: Erresuma Batua, Norvegia eta Japoniako abesbatzen saioa polifonia eta folklore sailetan Leidor aretoan 19:30etik aurrera.  
**Tolosa.** The uski eta Sugan musika taldeen kontzertua Bonberenean 22:30etik aurrera.

**ZINEMA**

**Villabona.** *Sin reservas* filma emango dute, gaur 22:00etan; bihar, 22:30ean; etzi, 19:30ean; eta azaroaren 5ean, ikuslearen eguna (sarrera 3 euro), 21:30etan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.  
Iruztun. Mutilloa, A.M. San Martin, 5. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# AHTren aurkako desafioa

**ANOETA ▶** Abiadura Handiko Trenaren inguruko herri galdeketa inguruan sega eta aizkora desafioa antolatu dituzko biharko



Herri galdeketa harira ekitaldi ugari antolatu dituzte; esaterako, pasa den asteburuko mendi martxa. N. U.

**ERREDAKZIOA**

**H**erri kirolen zaletuek hitzordu garrantzitsua dute biharkoan Anoetan, sega eta aizkora desafio interesgarri bezain bereziak izango baitira ikusgai. Hain zuzen, herrian abenduaren 2an AHTren inguruan antolatu duten herri galdeketa harira egingo dute anoetarren eta kanpotarren arteko lehia hau. 12:00etan hasiko da sega desafioa, nork azkarren eta ondoen moztu. Anoetarrek —Joakin Garmendia, Oier Urkola, Igor Urkola eta Txomin Garmendia— 200 m2 bete beharko dituzte eta aurkariek —Jesus Mari Ormaetxea *Urki*, Garikoitz Etxeberria *Melu*, Jokin Etxeberria eta Andoni Zuriarrain— 300m2.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**

Mattin (urtebete) eta Iratiri muxe handi bat. Familiaren partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.**  
**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**

**hitza**  
agurren tartea

**Bazkariarekin amaiera**

Ondoren aizkoraren txanda helduko da; bi anoetar (Garmendia eta Iturrioz) *Urkiren* aurka ariko dira. *Urki* orendaindarraren lana bi enbor mozteaz izango da eta anoetarrak hiru. Festa giroak bazkariarekin jarraituko du, Kuku Elkartearen, hain zuzen ere. Bazkarira joan nahi dutenek Itzuli eta Arkupe tabernetan eta Laia ikundegian eman dezakete izena.

**hitza Harpidedunen txokoa**

HITZako harpidedunen artean, **igandean azaroak 4, 17:00etan Tolosako Usabal kiroldegian** jokatu den **Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako** final-laurdenetako kanporaketa saiorako **3 sarrera pare zozketatu** ditugu eta hauek dira irabazleak:..

- ▶ 28175 Mari Jose Telleria Perurena (Albiztur)
- ▶ 30177 Garbiñe Ruiz de Egilaz (Tolosa)
- ▶ 30189 Mikel Urkola Roteta (Anoeta)

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

**HITZA** berritzera goaz, **laster gertuago**